



## HAIZEAREN KUMEAK

2022.a, beste urte oparoa, baita ahalegin handikoa ere. Hegazti intsektujale eta gaueko harraparietzako 30 kutxa. 1990etik. Gipuzkoan. Donostia, Astigarraga eta Errenteria, aparretan. Landa-koadernoak eta bere argazkiak, lagungarri. *Noizko beste ikuskapen bat?* Bertaratu direnen galdera klonikoa. Itzuli egin nahi dute. Bizi egin nahi dute.

111 arrautza, 87 jaiotza eta kanpora atera diren 72 txita. 54 kaskabeltz handi, 16 amilotx urdin eta 2 urubi arrunt. 163 ikuskapen, orotara. 2022ko boluntarioritza naturzalearen datuak. *Parkeia Bizirik* dugu izena. Gipuzkoako ondare naturala zaintzen dugun 16 elkarte naturzaleok bat gara eta, norberak bere espezialitatea duen arren, horietako edozein izen ere gure egin dezakegu edota haiek gurea.

Katagorria bere etsai porrokatuaren etxean sartu da, urubiarenean. Bertan, Uliako ereintz baten adaburuan, 3 kumez erdi da. Ondo joan zaio. Zurriola hondartza begi-bistan. Kaskabeltz handiak ere gauza bera egin du eta Gaueko Jaun-Andreei gela ostu die. Goroldio mordoak eraman du. Baina sarrera handiegia da eta norbaitek burua sartu eta errunaldia gosaldio dio. Eskinosaak, apika? Ikasi egin beharko du. Gertu eta erabilgarri, beste habia-kutxa txiki eta seguru batzuk ere bazituen, baina baztertu egin ditu.

Aiako Harrian eguna laster argituko du. Ilargia eta izarrak itzaliz, 2520 baso-hegaztik osatutako hodei erraldoi batek zerua ekialdetik mendebaldera Orereta, Astigarraga eta Uliak zeharkatu ditu. Gipuzkoako bertako bioaniztasunaren hodeia da, heriotzak kenduta, 1990 – 2022 bitartean Parkeia Bizirik-eko habia-kutxetatik kanpora irten diren 2520 hegaztiena. Gerri-txoriak, urubiak, txolarreak, garrapoak, amilotxak, kaskabeltzak... Horrela gure bizitzako azken 32 urteetan egindako 7508 ikuskapenetan dokumentatu dugu. Bizi-denbora gehiago kutxekin, kutxarik gabe baino.


Eta Parkeia Bizirik-eko “30 urte habia kutxekin” argazki erakusketa? Okendo eta Egiako Kultur Etxeetan bide egiten kusi dute, baita Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen campusean eta Martuteneko espetxean ere. Erakusketa badoa hegaz, Gipuzkoa altxor bilakatu duten 2520 doinuekin batera.

**Ikus ezazu bideoa YouTube-n: Haizearen kumeak**

<https://youtu.be/wcKQ-XX3xHM>

**Egian, 2023ko otsailaren 19an.**

**Parkeia Bizirik “Kukulunbera”**



AIAKO HARRIA





Parkea bizirik  
kukulunbera



KASKABELTZ HANDI EMEA ETA BERE HABIA (*Parus major*)





Parkea bizirik  
kukulunbera

URUBI ARRUNTAREN TXITAK (*Strix aluco*)